

Familia agurgarriak,

Honen bitartez, zure seme-alabarentzako Leintz Eskola Kirolak antolatutako eskola kiroleko eskaintzaren azalpena luzatzen dizuegu.

Izan ere, orain arte LH 2.mailara arte egindako ekintzak jolasak (JOLASHEZI programa) izan dira, eta ikasturte honetan KIROLAK praktikatzen hasiko dira KIROL ANIZTASUNEKO (Multikirola) etapan murgilduko baitira LH 3.mailako neska-mutilak.

Honekin, LEKeko eskaintzaren barruan dituzten aukerak azalduko dizkizuegu jarraian:

LEKeko eskaintzan adin honetan hiru ibilbide ditugu eta hauetako bat aukeratu beharko dute:

- 1) MULTIKIROLA:** kirol ugari praktikatuz kirol aniztasuna lantzen da, bailaran elkarteak dituzten kirolak ezagutzen direlarik: eskubaloia, areto futbola eta 8ko futbola, saskibaloia, errugbia, atletismoa, pilota eta erraketa kirolak. Asteazken zehar ordubeteko bi saio eta larunbat goizetan partidak izango dituzte.
- 2) AISIALDI KIROL JARDUERAK:** kirol ugari praktikatuz kirol aniztasuna lantzen da aisialdian praktikatu daitezkeen jarduerak ezagutzeko eta jarduera berriak ezagutu eta praktikatzeko aukera izango dute; jolas kooperatiboak, jolasak naturan, badminton, xumba, hockey patinak, eskupilota, frontenisa, patinajea, kirol egokitua, eta beste hainbat. Asteazken ordubeteko bi saio izango dituzte eta hainbat zapatuetan topaketak antolatuko dira.
- 3) LEKE KIROL EGOKITUA:** urritasunen bat duten ikasleei zuzendutako jarduerak. Asteazken ordubeteko 2 saio (saio bat kantxan eta 2.a uretan) eta hainbat zapatuetan topaketak antolatuko dira.

LEKeko eskaintza honetan, LH3.mailatik aurrera PARTE HARTZEN DUTENEK gainera, Foru Aldundiak 2017ko irailaren 25eko 02-118/2017 Foru Agindua bitartez baimenduta, kirol elkarteek antolatzen dituzten **KIROL ESKOLETAN** parte hartzeko aukera izango dute beraiek aukeratutako modalitatean ASTEAN BEHIN SAIO BAT eginez eta igande goizetan (hilean behin) partidak eginez. **Ekintza hauek eskola kiroleko ekintzen osagarriak kontsideratzen dira eta ez hauen ordezkariak**, horregatik eskola kiroleko programan parte hartu behar dute hauetan aritzeko.

Irailean ikastetxeetan eskola kirolerako zein kirol eskoletako izen ematea egiteko informazioa luzatuko zaizue, edozein zalantza argitzeko, ikastetxeko eskola kiroleko koordinatzailearekin kontaktuan jarri zaitezke.

Agur bat,

Estimada familia,

A continuación, os facilitamos la información sobre las actividades deportivas que Leintz Eskola Kirola ofrecerá para vuestros/as hijos/as.

Hasta ahora las actividades realizadas por los/as niños/as de 2º de Primaria han sido juegos (programa JOLASHEZI), y a partir de este curso comenzarán a conocer diferentes DEPORTES ya que a partir de 3º de Primaria comienzan a participar en la etapa de MULTIDEPORTE.

Con ello, os detallamos las diferentes opciones que tienen en esta nueva etapa:

En LEK ofrecemos dos itinerarios en esta nueva etapa deportiva, deberán elegir uno de ellos:

- 1) **MULTIDEPORTE:** se practican múltiples modalidades deportivas, priorizando las modalidades que tienen club en el valle: balonmano, fútbol sala, fútbol 8, baloncesto, rugby, atletismo, pelota y deportes de raqueta. Tendrán dos sesiones de una hora semanales y los sábados por la mañana partidos.
- 2) **ACTIVIDADES DE OCIO:** se practican múltiples modalidades deportivas priorizando actividades de ocio y en la naturaleza, conociendo nuevas modalidades deportivas y lúdicas: juegos cooperativos, juegos en la naturaleza, badminton, zumba, hockey patines, frontenis, patinaje, deporte adaptado, malabares, y muchos más. Tendrán dos sesiones de una hora semanales y los sábados por la mañana alguna actividad ocasionalmente.
- 3) **LEKE DEPORTE ADAPTADO:** actividad dirigida al alumnado con algún tipo de discapacidad. Tendrán dos sesiones de una hora semanales y los sábados por la mañana alguna actividad ocasionalmente.

AQUELLOS/AS QUE PARTICIPEN en las actividades de LEK a partir de 3º de Primaria, a su vez, podrán tomar parte en las **ESCUELAS DEPORTIVAS** que organizan los clubes del valle. Según se recoge en la norma Foral de 02-118/2017 del 25 Septiembre de 2017 de la Diputación Foral de Guipúzcoa. La cual, autoriza a los clubes a organizar dichas escuelas deportivas con sesiones UNA VEZ POR SEMANA y partidos un domingo al mes por la mañana. **Estas escuelas deportivas son actividades complementarias al deporte escolar que practican en la escuela y NO sustitutivas.** Por ello, deben participar en las actividades de deporte escolar que el centro escolar organiza.

En Septiembre recibiréis en el centro escolar la información para realizar las inscripciones tanto para deporte escolar como para las escuelas deportivas. Ante cualquier duda, podéis poneros en contacto con el/la coordinador/a del centro escolar,

Un saludo,